



Gipuzkoako Foru Aldundia

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
EUSKARA ZUZENDARITZA

**PROIEKTU ELKARTUAK
2014**

udal<>ekin
EUSKARA TEKNIKARIEKIN ELKARLANEAN

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	OINARRIAK	3
3	PROIEKTU ELKARTUAK	6
3.1	HERRI HANDIAK: LANLEKUKO LANGILEEN ARTEKO AHOZKO HARREMANAK EUSKALDUNTZEA 6	
3.2	HERRI ERTAINAK: KONTRATUETAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK, 2. FASEA.....	8
3.3	HERRI ERTAINAK: HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZERAKO DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETA	11
3.4	HERRI ERTAINAK: HIZKUNTZA HAUTUA APLIKAZIOETAN	14
3.5	HERRI TXIKIAK: GURASOEN ARTEKO HARREMANAK EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA.....	16
4	MINTEGIAK	19

1 SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zuzendaritza Nagusiak, euskararen normalizazio esparruan Gipuzkoako udalen arteko lankidetzara programa, Udal<>Ekin, garatu du azken urteotan.

Udal<>Ekin programaren helburua da, alde batetik, udalen arteko elkarlana bultzatzea eta, bestetik, euskararen sustapen edo normalizazio lanetan ari diren udalei laguntza zehatza ematea.

Elkarlana eta laguntza diren helburu nagusi horiek, proiektu elkartuen lan arloan gauzatzen da; hain zuzen ere, horien bidez garatzen diren proiektu zehatzetan, jakintza partekatze guneak baitira, azken finean, proiektu elkartuak.

Txosten honen bidez, proiektu elkartuen berri eman nahi dizuegu; orain arte egindakoa aurkeztu, eta aurrera begira proiektu horietan parte har dezazuen gonbidatu.

Sarrerarekin amaitzeko, Udal<>Ekinen izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu batetik, ondoren aurkeztuko ditugun proiektu elkartuetako talde eragiletan parte hartu duzuenoi eta bestetik, aurrera begira proiektu elkartuak diseinatzen, inplementatzen eta zabaltzen jarraituko duzuen udal guztiei.

2 OINARRIAK

“Proiektu elkartuetan” antolatzen diren jarduerak, Udal<>Ekin programan lidergo funtzioa hartu dute.

Lidergo hori, programak berak eskatzen dituen baliabideez gain, bere irismen ahalmenean eta lan arloen gurutzetan irudikatu da, proiektu elkartuen osaeran eta emaitzetan ikusiko dugun bezala.

Proiektu elkartuen funtzionamendurako oinarriak bere egitura eta multzokatzeko irizpideak dira. Bata zein bestearen zehaztasunak gogoratuko ditugu ondoren.

EGITURA

Proiektu elkartuaren egitura honako hau da:

- Talde eragilea

Proiektuaren diseinuan parte hartu duten udalek, Udal<>Ekinen aholkulariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari batek osatu dute. Talde eragilea izan da proiektuaren muina.

- Beste partaideak / eragileak.

Eragin eremua ahalik eta handia izatearren udal zerbitzuez gain beste eragileen parte hartzea bultzatu dugu azken urteetan proiektu elkartuen osaeran. Proiektu elkartuen fase desberdinetan, horien parte hartzea bereziki landu da. Proiektuaren arabera, talde eragileko partaide ez ezik, kontrasterako kide ere izan dira proiektuaren ezagutzaren kudeaketaren hainbat beharrei erantzuteko.

• Gainontzeko udalak.

Proiektu elkartuaren fase guztietako informazioaren hartzailleak izan dira bai mintegien bidez, bai intranetaren bidez. Estandarizatutako proiektua inplementatzean, hobekuntzak eta berrikuntzak antzematean eta Udal<e>Ekinen proiektuan txertatzean datza euren parte hartzeko gakoa.

Irudia: proiektu elkartuen parte hartzeko hiru zutabeak

TALDE ERAGILEA	BESTE ERAGILEAK	UDALAK
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua diseinatzeko ezinbestekoa. • Osaera: Udalak + Udal<e>ekineko aholkularia + beste eragileak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen zehar lerroaren aplikazio erreala. • Talde mixtoak osatzea lehentasunezkoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio jaso eta estandarizatutako proiektua inplementatzeko aukera.

TIPOLOGIAK ETA FASEAK

2012an proiektu elkartuen dinamika martxan jarri zenean, hiru tipologiako proiektu elkartuen lankidetzaren ereduak jarri genuen abian, biztanle kopuruaren eta euskaldunen ehunekoaren arabera antolatuta.

1. TIPOLOGIA, "HERRI TXIKIAK". UEMAn biltzen diren eta ezaugarri berdinek dituzten udalak (biztanle gutxiak eta, ehunekoetan, euskaldun gehien dituztenak; > % 80)
2. TIPOLOGIA "HERRI ERTAINAK". Euskaldunen batzuetan bestekoa altua (% 60-80 artean) duten herri ertainak (4.600-22.000 biz.).
3. TIPOLOGIA "HERRI HANDIAK ETA HIRIAK" Euskaldunak % 60 baino gutxiago diren herri eta hiriak.

Tipologiak definitu badira ere, ondorengo zehaztasunetan ikusiko duzun bezala egun, proiektu elkartuetan herri ertainetako eta handietako herriak elkarrekin aritu dira proiektu horien diseinuan (herri txikietan izan ezik, horretan tipologia izaera mantendu egin baita).

Aipatu beharra dago baita ere, aurkezten ditugun proiektu elkartuak 2014an zehar fase desberdinetan aritu izan direla. Izan ere, batzuk aurreko urteetatik datozenak dira eta beste batzuek, berriz, aurten izan dute definizio eta diseinu fasea. Beraz, bi aldagai gurutzatuz aurkeztuko ditugu: proiektu elkartuaren talde eragilearen osaera eta proiektu elkartu bakoitzaren fasea.

Faseari dagokionez, hiru motatako proiektu elkartuak izan ditugu:

1. PROIEKTU ELKARTU BERRIAK

Proiektuaren definizioa eta diseinu egiten jardun du talde eragileak.

2. PROBA PILOTUAK

Metodologia probatzen aritu gara lehenengo aldiz, homologazio fasean. Esku hartze horien diseinua egina dago. Hau da, fase honetan metodologia hori jasotako moduan inplementatuz gero, emaitzetan izango duen eragina neurtu da. Amaieran, metodologia balidatu dugu.

3. ESTANDARIZATUTAKO PROIEKTUAK

Inoiz egin izan diren proiektuak eta emaitzetan eragina dutela frogatuta dugu. Helburuak lortzeko egokiak eta berriro inplementatzeko planifikatuta eta metodologikoki probatuak. Hortik aurrera jarraipenak izango du garrantzia, egoera berri horretan hobekuntzak antzeman ahal izateko.

Beraz, bi aldagai gurutzatuz aurkeztuko ditugu: proiektu elkartuaren talde eragilearen osaera eta proiektu elkartu bakoitzaren fasea. Ondorengo taulan 2013 eta 2014ko proiektu elkartuen faseak bildu ditugu, bakoitzaren ibilbidea nondik datorren gogorarazteko.

PROIEKTU ELKARTUA	2013ko FASEA	2014ko FASEA
1. "Udaleko lanlekuko ahozko erabilera"	DISEINUA	PROBA PILOTUAK ESTANDARIZATUTA
2. "Herri txikietako gurasoen erabilera"	DISEINUA	PROBA PILOTUAK
3. "Kontratazioetako hizkuntza irizpideak"	ESTANDARIZAZIOREN ZABALKUNDEA eskualdeka	JARRAIPENA
4. "Kontratazioetako hizkuntza irizpideen jarraipenerako aplikazioa"		DEFINIZIOA eta DISEINUA
5. "Euskalduntze alfabetatzerako laguntzak" diru		DEFINIZIOA eta DISEINUA
6. "Hizkuntza aplikazioetan" hautua	DEFINIZIOA	DISEINUA

Proiektu elkartuen zehaztasunak emango ditugu ondoren. Zehaztasun nagusiak biltzen eta sintetizatzen saiatu gara, informazio guztia eta baita proiektu elkartuetan sortu den materiala ere eskura baituzue Udal<e>ekin intranetean, jarduera atalean.

3 PROIEKTU ELKARTUAK

Ikerketa eta garapena
lanketa dira proiektu
elkartuak, eta
lankidetzaren ispilu argia.

3.1 HERRI HANDIAK: LANLEKUKO LANGILEEN ARTEKO AHOZKO HARREMANAK EUSKALDUNTZEA

TALDE ERAGILEA

Guztira zortzi erakunde.

Parte hartzaileak, sei emakumezko eta bi gizonezko.

Aholkularia, Amaia Balda (Udal<>Ekin).

Andoaingo Udala: Xabier Jauregi eta Arantza Aguado.

Bergarako Udala: Maripi Laskurain eta Jardun Euskara Elkarteko Maitane Arizabaleta.

Donostiako Udala: Amaia Iribar.

Errenteriako Udala: Arantxa Zabala.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Hernaniko Udala: Kristina Korella eta Malores Etxeberria.

Irungo Udala: David Izaga.

Zarauzko Udala: Alazne Iturriotz.

HELBURUA

Lanlekuko langileen arteko ahozko harremanak euskalduntzea.

EPEA EDO DATA

2012-2014.

DESKRIBAPENA

1. DISEINUA

- 2012an diskurtso txostena idatzi zen: lanlekuko harremanetan eragiteko arrazoiak, legea eta ondorioak.
- 2013an mintegia egin eta esku hartzea diseinatu zen.

2. PROBA PILOTUAK

- 2014an esku hartzea inplementatu eta zabaldu da.

EMAITZA

Andoain, Donostia, Errenteria, Hernani, Irun eta Zarautzen egitasmoa garatu da, eta emaitza onak eman ditu guztietan ahozko erabilerak gora egin duelako.

AURRERA BEGIRAKOAK

Lanlekuko ahozko harremanak euskalduntzeko talde eragileak lehen esperientziak amaitu ostean, materiala eta metodologia balidatu ditu. Hemendik aurrerako helburua egitasmo hau udal horietako beste sailetara eta gainerako udaletara zabaltzea da.

Zabalkundea egiteko fasean gaude, beraz. Udal eta sail gehiagotara zabalduko da egitasmoa. Orain arteko teknikariek egingo dute gidaritza lana egitasmora hurbiltzen diren teknikariek.

Hauxe da zabalkundea era planifikatuan egiteko jarraituko ditugun pausoak:

- 1.- Materiala aztertu.
- 2.- Udaletan parte hartzeko erabakia hartu.
- 3.- Izen-ematea egin. Epea: azaroak 12.
- 4.- I. Koordinazio bilera(k) egin. Azaroaren erdialdean.
- 5.- Egitasmoa martxan jarri. 2015eko urtarrilean.
- 6.- II. Koordinazio bilera egin. 2015eko otsaila-apirila bitartean.
- 7.- Egitasmoen ebaluazioa egin. 2015eko ekainean.
- 8.- Izen-emate berria 2015eko irailetik aurrera egitasmoa martxan jarri nahi dutenentzat.

MATERIALA

HERRI HANDIAK

“Udal langileen ahozko erabilera”

<http://udalekin.net/jarduerak/udal-langileen-ahozko-erabilera>

- Diskurtso txostena.
- Esku-hartzea.
- Hedapenerako prozesua.
- Aurkezpena arduradun politikoentzat.
- Gogoeta saioa_1.
- Gogoeta saioa_2.

HELBURUA

Lanlekuko langileen arteko ahozko harremanak euskalduntzea



Aldaketa nola? GAKOAK

Talde barruko pertsona batzuk aldaketa hori bultzatzea. XERPA

Nola? Taldekide guztiei euskaraz eginez.

Nork? XERPAK



PROIEKTUAREN BALORAZIOA	
ARRAKASTARAKO GAKOAK	INDARTZEKOAK
<ul style="list-style-type: none"> ● Talde eragileak egindako lana. ● Taldean aritu izana, egindako guztia partekatuz. ● Prozesuan zehar sortutako materiala eta jasotako prestakuntza. ● Proba pilotuetako interbentzioetan, talde eragileko kideen arteko elkartrukea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Esku hartzea amaitutakoan, interbentzioari jarraipena nola egin lotu beharreko alderdia da.

3.2 HERRI ERTAINAK: KONTRATUETAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK, 2. FASEA

TALDE ERAGILEA

Guztira bost erakunde.
Parte hartzaileak, bi emakumezko eta hiru gizonezko.
Aholkularia, Marije Manterola (Udal<>Ekin).

Bergarako Udala: Estepan Plazaola.
Zarauzko Udala: Maite Etxaniz.

Lezoko Udala: Joxe Mari Iraola.
UEMA: Imanol Haro
Gipuzkoako Foru Aldundia.

HELBURUA

Kontratuetakoz hizkuntza irizpideen jarraipena errazteko tresna informatikoa sortzea.

EPEA EDO DATA

2014ko urtarriletik 2014ko abendura.

DESKRIBAPENA

- Hizkuntza irizpideen jarraipenaren emaitzak modu automatikoan lortzeko aplikazio informatiko malgua sortzeko aurrekontua eskatu zitzaion KAM enpresari.
- Aplikazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak erosiko du.
- Datuen jabetza Udalena izango da. Udalek datu orokorren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari utzi ahal izango diote.
- Urteko mantenu lanak Udalen eta GFAREN artean partekatuko dira.

EMAITZA

Kontratuetakoz hizkuntza irizpideen jarraipena egiteko aplikazioa sortu da. Datu hauek kudeatuko dira:


- Helburuen betetze-maila.
- Adierazleen betetze-maila.
- Adierazleak multzoka.
- Bilakaera.
- Hizkuntza-egoera .

AURRERA BEGIRAKOAK

- 2014ko azaroan: aplikazioan datuak sartu eta azken “ukituak” emango dizkiogu.
- 2014ko abenduan: udal guztiei eskainiko diegu, baldintzak, ordainketak, datuen lagapena eta bestelako gaien inguruko informazioa emanez.
- 2015ean,
 - Gipuzkoako udalen datuen jarraipena egiteko protokoloa martxan jarriko da.
 - Aplikazioaren erabileraren jarraipena egiteko bidea adostu beharko da.

MATERIALA

HERRI ERTAINAK: “Kontratuetao hizkuntza irizpideak 2. Fasea (aplikazioa)”



Proiektuaren informazioa:

<http://udalekin.net/jarduerak/pe-kontratuetao-hizkuntza-baldintzak-bigarren-fasea>

PROIEKTUAREN BALORAZIOA	
ARRAKASTARAKO GAKOAK	INDARTZEKOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Kontratuetakozko hizkuntza irizpideen proiektu elkartutik sortutako beharrari erantzun zaio. • Jarraipena modu errazean egiteko tresna bat diseinatu(ko) da. • Talde eragilea aurreko proiektuan (1. Fasean) ere elkarrekin aritu izanak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Finantziario iturriak aztertzeak eta horien inguruko erabakiak baldintzatu egin dute proiektu hau ixtea.

3.3 HERRI ERTAINAK: HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZERAKO DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETA

TALDE ERAGILEA

Guztira hamalau erakunde.
Parte hartzaileak, hamaika emakumezko eta lau gizonezko.
Aholkularia, Marije Manterola (Udal<>Ekin).

Andoaingo Udala: Arantza Aguado eta Leire Rodriguez.
Aretxabaletako Udala: Ane Lore Estala.
Azkoitiko Udala: Jasone Bilbao.
Donostiako Udala: Sorkunde Artetxe .
Gipuzkoako Foru Aldundia.
Irungo Udala: Josebe Alaña.
Oiartzungo Udala: Aitziber Arnaiz.
Oñatiko Udala: Xabier Zabaleta.
Pasaiaiko Udala: Jaione Urruzola.
UEMA: Miren Segurola.
Zestoako Udala: Nora Palmitano.
Gipuzkoako Batuz: Isidro Yoldi.
AEK: Borja Arbelaitz.
Udal Euskaltegiak: Mirenbe Korta.

HELBURUA

Gipuzkoako herrietan euskalduntze-alfabetatzerako diru laguntzen kudeaketarako proposamen bateratu bat/batzuk adostea.

EPEA EDO DATA

2014

DESKRIBAPENA

1. DEFINIZIOA

Proiektu elkartu honen sorreran dauden beharrak hauek izan dira:

- Udaletan dagoen egoera aztertuz, sistema hobetzea.
- Herritarren euskalduntze-alfabetatzea eskubidea administrazioaren eginbearra dela azpimarratu eta, bide horretan, euskara ikasteko doakotasuna bultzatzea. Gipuzkoako herri guztietan, doakotasuna herritar guztientzat izatea, bizi den herrian edo beste herriren batean ikasi arren.
- Aldundiaren euskalduntze-alfabetatze esparruko diru laguntzen inguruko proposamenak lantzen laguntzeko tresna izatea.
- Euskalduntze-alfabetatzea indartzea.

2. DISEINUA

Proiektu elkartu honetan hiru arlo landu dira:

- Gipuzkoako udalek euskalduntze-alfabetatze esparruan kudeaketa aldagai berdin edo antzekoekin egiteko ereduak proposatuko dira.
- Diskurtsoa eraiki da, euskarazko euskalduntze-alfabetatzea herritarren eskubidea dela azpimarratuz.
- Doakotasuna lantzeko proposamena aztertuko da, talde eragilean eta dagokionari egingo zaio proposamena.

EMAITZA

- Udaletarako baliagarria izango den "Eredua" prestatu da. Ereduan jasotzen diren herritarren ordainketarako bi proposamenen egokitasun legala aztertzen ari gara.
- Doakotasunaren aldeko diskurtsoa lantzen ari gara.
- Doakotasunaren beharra gizarteratzeko aukerak aztertzen dihardugu.

AURRERA BEGIRAKOAK

- Ereduan bi proposamen jaso dira herritarrek matrikularako ahalik eta diru gutxien aurreratu behar izan dezaten. Bi proposamen horien legezko egokitasuna aztertzea falta da. Hori aztertzeko eskaera Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, HABEri eta Eudel-i bideratzeko aukerak jorratzen ari gara.
- Diskurtsoaren lanketarako testua bateratzen ari gara, udalen eskura jartzeko.
- Euskalduntze-alfabetatze sektoreko ordezkariak euskalduntzearen doakotasuna gizartzeratzeko aukerak aztertzen dihardute. Gai hori jorratzea erabakiko balitz, proiektu elkartu honen talde eragileak lankidetzan jarduteko prestutasuna agertu du.

MATERIALA

Herri ertainak “ Helduen euskalduntze-alfabetatzerako diru laguntzen kudeaketa”



Diru laguntzen kudeaketarako eredia, proposamena

Diru laguntza mota	Aldagaiak	Prozedurak
<ul style="list-style-type: none"> Doakotasun baldintzatua Diru laguntza orokorra, doakotasunerazko bidean 	<ul style="list-style-type: none"> Lehentasunak ezartzeko irizpideak Diru laguntza % Baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> errola aprobetxamendua asistentzia ohiko betekizunak bateragarritasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Herri txikiak/handiak Euskaltegi publiko/pribatu Matrikula Hitzarmena Herritarren lehen ordainketa: bi proposamen Gainfinantzaketa Legelarien txostena

EREDUA:
<http://udalekin.net/jarduerak/pe-dimlaguntzak>

PROIEKTUAREN BALORAZIOA

ARRAKASTARAKO GAKOAK

- Gaiaren zehar lerroak eskatzen zuen talde eragilean, sektoreko hainbat eragile desberdin egotea, eta lortu da.
- Egitasmoa definizio eta behar zehatz batetik abiatu izana.

INDARTZEKOAK

- Bilera kopuru mugatuak (hiru) zailtasunak sortu ditu, mintegiko proposamenak ereduan txertatzeko.
- Ereduan proposatutakoren legetxostena lortzeko zailtasun handiak Gipuzkoako Foru Aldundian . Koordinazio Teknikorako Batzordean (Udal<>Ekinen jarraipena batzordea) egindako proposamena (beste herri erakundeei lege aholkularitza eskatzea) bideratu behar da, eta horrek oraindik ez du bere bidea egin.

3.4 HERRI ERTAINAK: HIZKUNTZA HAUTUA APLIKAZIOETAN

TALDE ERAGILEA

Guztira zazpi erakunde.

Parte hartzaileak, bost emakumezko eta bi gizona.

Aholkularia, Marije Manterola (Udal<>Ekin).

Aretxabaletako Udala: Ane Lore Estala

Azpeitiako Udala: Patxi Saez

Beasaingo Udala: Ane Barandiaran

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ordiziako Udala: Izaskun Zubitur

UEMA: Imanol Haro

Villabonako Udala: Maite Arregi

HELBURUA

Herritarren hizkuntza hautua bermatzea udalek erabiltzen dituzten aplikazio informatikoetan.

EPEA EDO DATA

2013-2014

DESKRIBAPENA

1. DISEINUA

- Egoeraren diagnostika egin da:
 - Lanerako tresna informatikoak: IZFERenak eta espedienteen kudeaketarako Munigex; bien arteko uztartekarik ez dago.
 - Lan egiteko tresna eta modu desberdinak daude udalen artean.
 - Herritarrekiko harremanak euskaraz izateko erroldak egin dituzte hainbat udaletan.
 - Datu base asko dago helburu desberdinetarako.
 - IZFERen aplikazioan agiri guztiak euskaraz ez daude. Aplikazioa bera egokitu beharra dago hizkuntza kudeaketa eraginkorra egin ahal izateko.
- Ekintza plana:
 - Udal aplikazioetatik ateratako agirien bilketa eta azterketa egin da.
 - Agirien hizkuntza irizpiderako (elebitasun asimetrikoa) proposamena landu da.
 - Agirien hizkuntza kalitatea hobetzeko bidea aztertu da.
 - IZFERi lankidetzeta proposatu zaio.

EMAITZA

IZFEkin bilera egin zuen talde eragileak 2014ko martxoan, diagnostikoa eta proposamenak zuzenean aurkezteko. Bilera horren emaitza izan da:

- IZFEk errolda aplikazioa berritu behar du 2015ean.
- Talde eragileko ordezkariak gonbidatuko dute hizkuntza aholkularitza egin ahal izateko, udal erroldaren aplikazioa berritzeko batzordera.

AURRERA BEGIRAKOAK

Erroldaren Batzordean parte hartzeko gonbidapenaren zain dago talde eragilea .

PROIEKTUAREN BALORAZIOA

ARRAKASTARAKO GAKOAK

- Herritarrengana euskaraz zuzentzeko udalen aplikazioetan dauden zailtasunak antzematea.
- Talde eragilearen eta IZFEren arteko elkarlana.

INDARTZEKOAK

- IZFEk udal erroldaren aplikazioa berritzeko batzordea lehenbailehen sortu eta operatiboa izatea.

3.5 HERRI TXIKIAK: GURASOEN ARTEKO HARREMANAK EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA

TALDE ERAGILEA

Guztira zortzi erakunde.

Parte hartzaileak, lau emakumezko eta lau gizonezko.

Aholkularia, Amaia Balda (Udal<e>Ekin).

Gabiriako Udala: Jokin Murua.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Idiazabalgo Udala: Beatriz Mena.

Irura-Anoetako Udala: Idoia Olano.

UEMA: Leire Asenjo.

Zegamako Udala: Xabi Bosch.

Zeraingo Udala: Jose Mari Telleria.

Zizurkilgo Udala: Ainhoa Larrea .

HELBURUA

Gurasoen arteko kale eta etxeko erabilera handitzea herri txikietan.

EPEA EDO DATA

2012-2014

DESKRIBAPENA

1. DISEINUA

- 2012an egitasmoa diseinatu zen.

2. INPLEMENTAZIOA

- 2013an bi herrietan diagnostiko kuantitatiboak egin eta ondorioak atera ziren (galdetegia eta kale neurketak) Klusterrarekin batera.
- 2014an bilerak herrietako eskola eta gurasoekin egin dira. “Aita, ama... kontu bat dut zuei esateko” egitasmoa diseinatu da.

3. PROBA PILOTUAK

- 2014ko irailetik aurrera porba pilotuak egiten ari dira.

EMAITZA

Herri txikietako erabilera neurketak egiteko metodologia diseinatu da Soziolinguistika Klusterrarekin batera. Diagnostikorako metodologia idatzi da.
Proba pilotuen arabera, herri txikietarako esku hartzea eskura jarriko da.

AURRERA BEGIRAKOAK


2014ko irailetik aurrera, herrietako bideoak grabatzen ari dira eta horiek egindakoan, kafe tertulia egingo dugu Iruran eta Gabirian, gurasoekin gaiaren inguruan hausnartzeko.
2015tik aurrera, proba pilotuan amaitzean, herri txikietan egitasmoaren zabalkundea egitea aurreikusi da .

MATERIALA


HERRI TXIKIAK “Gurasoen arteko harremanak euskalduntzeko egitasmoa)

- Esku hartzeko proposamen txostena
- Kale neurketak:emaitzak
- Ikasleen galdetegiak
- Bideoak eta kafe tertuliak (proba pilotuak amaitzean)

<http://udalekin.net/jarduerak/pe-herri-txikietako-gurasoen-erabilera>



PAUSOAK



PROIEKTUAREN BALORAZIOA

ARRAKASTARAKO GAKOAK

- Egitasmo erakargarria diseinatzea.
- Herrietan gertuko harremanak izatea egitasmoa aurrera eraman ahal izateko.
- Egitasmoan beste eragileen inplikazioa eta parte hartzea: eskola eta gurasoak, gazteak ere bai.

INDARTZEKOAK

- Herri txikietako baliabide faltak luzatu egin du denboran egitasmoaren diseinua eta inplementazioa.
- Erakunde ezberdinen (Berritzegunea, Hezkuntza Saila, GFA, udalak eta eragileak) arteko koordinazioa bideratu beharrak ere erritmoan eragina izan du.

4 MINTEGIAK

Proiektu elkartu guztien jarraipena, baita sortutako materiala eskuratu ere, Udal<>Ekin intranetaren bidez egin ahal izan da.

Horretaz gain, "zabalkunderako mintegiak" egin ditugu azken urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Jalgi Aretoan. Proiektuen fase desberdinen egoeraren berri emateaz gain, talde eragilearen errekonozimendua eta proiektuenganako interesa piztea ere helburu izan dute.

Ondorengo mintegietako irudiak gogoratuz, emango diogu amaiera txosten honi



1. MINTEGIA, 2013ko urtarrilaren 30ean

"Kontratueterako hizkuntza baldintzen" aurkezpen-mintegian, 100 lagun inguru bildu ginen. Ondoren, prentsaurrekoa egin zen komunikabideentzat.

2. MINTEGIA, 2014ko otsailaren 12an

2014ko otsailaren 12an, herri txiki, ertain eta handien proiektu elkartuen berri jasotzeko mintegia egin zen. 75 bat lagun elkartu ginen eta ondoren, elkarrekin bazkaltzeko aukera ere izan genuen.

3. MINTEGIA, 2014ko urriaren 1ean

2014ko urriaren 1ean, proiektu elkartuen 3. mintegian 60 lagun elkartu ginen.